ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2022ko abuztuaren 8a, astelehena • 90 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 22an hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira 2022-2023 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako dirulaguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak

BDNS(Identif.): 641500

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/641500).

Lehena. Onuradunak

Haur hezkuntzako bigarren zikloa eta derrigorrezko hezkuntza duten Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira deialdi honen hartzaileak, betiere, ikastetxe horietako ikasleek (guztiek edo batzuek) 2022-2023an Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-programetako batean parte hartzen badute eta, horrez gain, garraiobide kolektiboren bat erabili behar izan badute beren ikastetxetik programa gauzatu den tokira joateko edo alderantzizko bidea egiteko.

Bigarrena. Helburua

Hauxe da dirulaguntzen deialdi honen xedea: 2022-2023 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeei beren gastuetan laguntzea, ikasleak garraio kolektiboetan garraiatzeak eragindako gastuetan, zehazki.

Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko uztailaren 22ko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 21.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Dirulaguntzaren eskaera eta dagokion dokumentazioa nahiz diruz lagundu daitekeen garraio-gastuaren justifikazioa aldi berean aurkeztuko dira, horretarako ezarritako epean, hots, oinarri hauen deialdiari dagokion laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 2023ko ekainaren 16ra bitartean (egun hori barne). Eskabideak eta justifikazioa epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 22an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.08.08 06:34:15 Z